

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5530

EBAZPENA, 2015eko abenduaren 30ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoan lana duten langileei lehentasunez zuzendutako enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzen 2016ko ekitaldiko deialdia, Lanbideren Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez onartua.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2015eko abenduaren 30eko bilkuran hartutako Erabakiaren bitartez, onartu egin du Euskal Autonomia Erkidegoan lana duten langileei lehentasunez zuzendutako enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzen 2016ko ekitaldiko deialdia, eta, Lanbideren Estatutueta 10.2 artikulua (p) letran xedatutakoarekin bat etorritik (estatutu horiek maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onetsi ziren), Lanbideko zuzendari nagusiari dagokio deialdia argitaratzea.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoan lana duten langileei lehentasunez zuzendutako enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzen 2016ko ekitaldiko deialdia. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2015eko abenduaren 30eko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez onetsi zuen deialdi hori, ebazpen honen eranskinean jasota dagoena.

Bigarrena.– Jakinaraztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango dituela ondorioak laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiak.

Hirugarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, zeinen bidez deialdia onartzen baita, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 30a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

2015eko abenduaren 31, osteguna

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN LANA DUTEN LANGILEEI LEHENTASUNEZ
ZUZENDUTAKO ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZEN 2016KO
EKITALDIKO DEIALDIA

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean daude, 1995eko irailaren 27an sinatu zirenetik, Etengabeko Prestakuntzari buruzko Lanbide arteko Akordioa eta ondoren izenpetutako Euskal Autonomia Erkidegoko Etengabeko Prestakuntzarako Hiruko Akordioa, eta, azken horren bitartez, Eusko Jaurlaritzak bere egiten zuen gizarte-eragileek erabakitako eredia eta zehaztu egiten ziren alderdiek onetsiriko betekizunak.

Hiruko Akordioaren bitartez, Hobetuz-Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa sortu zen, honako helburu hauek betetzeko: EAEn lanean ari diren langileen prestakuntza kudeatzea eta zuzentzea, enpresen, langileen eta ikastetxeen artean etengabeko prestakuntzarekiko interesa piztea, eta prestakuntza hori ahalik eta gehien zabaltzeko eta ahalik eta eraginkortasun handiena izateko baldintzak sustatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari esleitzen dio enplegu-politika eta, Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin lankidetzan, enplegurako lanbide-prestakuntzaren azpisistema.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokio, beste zenbait funtzioen artean, enplegu-programen, enplegurako prestakuntza-programen eta autoenplegua eta enpresen sorkuntza sustatzeko programen kudeaketa. Egiteko horiek barne hartzen dute dagozkion diru-laguntza deialdiak onartu eta izapidetzea, hala ezarrita baitago 82/2012 Dekretuak onarturiko erakunde autonomoaren estatutuen 3.b) artikuluan. Enplegurako prestakuntzaren barruan, lana duten langileei lehentasunez zuzenduriko prestakuntza dago, bai eskatutakoa –enpresen prestakuntza-ekintzak eta banakako prestakuntza-baimenak–, bai eskainitakoa –lehentasunez lana duten langileei zuzendutako prestakuntza-planak.

Lana duten langileei lehentasunez zuzendutako enplegurako lanbide-heziketa funtsezkoa da bizialdi osoko prestakuntza ziurtatzeko, langileak eta enpresak ezaguera oinarrian duen gizartera egokitzeko eta langileen gaitasun profesionalari eusteko Europako Enplegurako Estrategiaren esparruan garatzen diren produkzio-prozesuek izan ditzaketan aldaketen aurrean.

Prestakuntza, langileei lan-bizitzan beharko duten kualifikazioa emateaz gain, lehentasunezko balio estrategiko bat da aldaketa teknologiko, ekonomiko eta soziala dakarten prozesuetan, eta, hori dela-eta, funtsezkoa da enpleguaren egonkortasuna eta gizarte-kohesioa lortzeko.

Testuinguru horretan, prestakuntza-ekintzen bitartez –erabaki honetan finkatzen da ekintza horien finantzaketa–, prestakuntza-eskaintza zabala egiten zaie Euskal Autonomia Erkidegoko langileei, enpresetan sustatutako prestakuntza-planak osatuko dituen edo, horiek ezean, prestakuntza-premiei erantzungo diena.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren proposamenez, erakunde autonomo horretako Administrazio Kontseiluak, 2015eko abenduaren 30eko bilkuran, onartu egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoan lana duten langileei lehentasunez zuzendutako enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzen 2016ko ekitaldiko deialdia, honako baldintza hauekin:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan lana duten langileei lehentasunez zuzendutako enplegurako prestakuntza-planak garatzeko 2016ko ekitaldiko laguntzak arautzea. Prestakuntza-plan horietan, hainbat prestakuntza-ekintza gauzatuko dira, helburu dutenak langileen gaitasuna eta kualifikazioa hobetzea eta banan banan berriro kualifikatzea.

2.– Deialdi hau finantzatzera bideratuko diren diru-baliabideak 16.900.000 euro dira, eta horietatik 8.450.000 euro 2016ko ordainketa-kredituari dagozkio eta 8.450.000 euro 2017ko konpromiso-kredituari.

Guztira emango diren laguntzen bolumenak ez du gaindituko aipatutako kopurua edo hori eguneratetik ateratzen dena, baldin eta indarreko legeriaz bat aurrekontu-aldaketak onartzen badira; eta hala bada, zirkunstantzia hori argitara eman beharko da EHAAn, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez eman ere.

2016ko ekitaldikoa finantzatzeko laguntzak ebazteko, langileei zuzendutako eskaintzaren enplegu-prestakuntzarako planetan, kreditu nahikoa eta egokia egon behar da 2016. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, betiere Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikulua ondo onararazi; agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Nagusien kargutan egiteko diren gastu-espedienteen aurreratutako tramitazioa araupetu zen.

3.– Ez dute finantzaketarik jasoko enpresa bakar bateko lanpostuetara aplika daitekeen irakaskuntza eskaintzen duten eta beste enpresa batzuetan erabili ezin diren kualifikazioak eskaintzen dituzten prestakuntza-ekintzek, ez eta nagusiki prestakuntza-prozesu baten garapena (irakaskuntza-ikaskuntza) bilatzen ez duten ekintzek ere.

4.– Deialdi honetako laguntzak, ez dira bateragarriak izango prestakuntza-ekintza horiek berak egiteko onuradunek jaso ditzaketan beste mota bateko laguntzekin.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak, prestakuntza jasoko duten pertsonak eta aldi baterako aplikazio-eremua.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzen onuradunak izan ahalko dira EAEn kokatuta dauden prestakuntza-erakundeak, eta egiaztatuta eta/edo inskribatuta badaude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Erregistroan edo, hala badagokio, Prestakuntza Espezialitateen Estatuko Erregistroan.

Erakunde bat EAEn kokatuta dagoela ulertuko da, baldin eta EAEn lantoki finko eta operatibo bat badauka, hau da: lantokiak benetan jardunean egon behar du, eta diruz lagundu nahi diren ekintzak gauzatzeko bezainbeste bitarteko material izan (azpiegitura, instalazioak eta tresneria); halaber, lantoki horretara atxikitako langileak nahikoak izango dira eta gaitasuna izango dute kasuan kasuko plana osorik kudeatzeko.

Halaber, teleprestakuntza-modalitatean eskaintzen diren profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntzaren kasuan, EAEn kokatuta dagoela ulertuko da baldin eta lankidetzaren hitzarmen bat izenpetua badute EAEn kokatuta dagoen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak modalitate presentzialean halako ziurtagiriarentzako egiaztatu duen prestakuntza-erakunderen batekin.

2.– Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntza eskuratzeko, prestakuntza-erakundeek bermatu beharko dute badituztela diruz laguntzea eskatu duten prestakuntza-programa aurrera eramateko behar diren bitarteko pertsonal eta materialak. Horretarako honako hauek egiaztatu beharko dituzte:

a) Ahalmen ekonomiko eta finantzarioa, eta, horretarako, egiaztatu beharko dute langabeentzat eta/edo langileentzat bideratutako enplegurako prestakuntzari lotuta 2012, 2013 eta 2014 ekitaldietan (batez beste) eskatutako diru-laguntza baino negozio-bolumen handiagoa izan dutela.

Eskatzailea sozietate-talde batekoa bada, taldearen ahalmen ekonomiko eta finantzarioa hartuko da kontuan, eta halakotzat joko da 1407/2013 Erregelamenduaren (EB) 2.2 artikuluan enpresa bakarraren definizioarekin bat datorrena edo Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan sozietate-taldearen definizioarekin bat datorrena.

b) Prestakuntza-plana burutzeko baliatuko diren erakundearen instalazioak eta giza baliabideak.

Hori egiaztatzeko, eskaerarekin batera, erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpen bat erantsi beharko da. Edonola ere, eskatzaileak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hobetuz fundazioaren esku izan beharko du adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla erakusten duten dokumentuak.

Ahalmen ekonomiko eta finantzarioari dagokionez, negozio-bolumena egiaztatuko duen dokumentazioa aurkeztu beharko da (kontratuak, fakturak eta bankuko erreziboak; diru-laguntzak ematen dituzten ebazpenen eta azken likidazioen kopia eta, halakorik izanez gero, baita itzulketenak ere) bai eta kasuan kasuko ekitaldietako urteko kontu auditatuak eta, kasuaren arabera, bateratuak ere.

3.– Ezin izango du erakunde onuradun izan Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan aipatutako egoeran dagoen ezein erakundek.

4.– EAEko langile guztiek parte hartu ahal izango dute diruz lagundutako ekintzetan. Mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalek, mendetasun-egoeran dauden pertsonen arretarekin erlazioan finantzatzen den prestakuntza-eskaintzan parte hartu ahal izango dute, betiere Eusko Jaurlaritzak mota honetako prestakuntza eskaintzeko baimendu dituen erakundeetan egiten badute.

Administrazio publikoetan lan egiten duten langileek plan guztietan parte hartu ahal izango dute, gehenez ere plan bakoitzaren parte-hartzaileen ehuneko 10eko proportzioan.

Deialdi honetan aurreikusitako ekintzetan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emandako langile langabeen parte-hartzea planean parte hartzen duten pertsonen % 40koa izango da gehenez. Zentzu horretan, parte-hartzaileak langabetzat hartuko dira baldin eta trebakuntza-ekintza hastean egoera horretan badaude. Halaber, prestakuntza-jardueretan parte hartu ahal izateko, langabeak Lanbideko Orientazio Zerbitzuak proposatutakoak izatea gomendatzen da.

Prestakuntza-planen titularrak eta diru-laguntzen onuradunak diren erakunde titularretako langile-zerrendako langileek parte hartu ahal izango dute eurek kudeatzen dituzten prestakuntza-ekintzetan, baina plan bakoitzeko parte-hartzaileen % 10 gainditu gabe, eta ezin izango dute inola ere gainditu langile-zerrendako langile guztien % 10.

5.– Finantzaketa jaso dezaketen ekimenak hasi beharko dira diru-laguntza eman delako ebazpena jakinarazten denetik aurrera, betiere 2016ko abenduaren 31 baino lehen, eta amaitu beharko dira gehenez ere 2017ko ekainaren 30ean.

3. artikulua.– Prestakuntza-planak eta erakunde titularrak.

1.– Prestakuntza Plantzat hartuko da prestakuntza-behar jakin batzuei erantzuteko osatutako prestakuntza-ekintzen multzoa, betiere kontuan hartuta, ekintzak zuzentzen diren taldearen tamai-

nagatik, aurreikusitako prestakuntza-orduen bolumenagatik edo bestelako ezaugarri garrantzitsu batzuenagatik, planaren onuradunen gaitasunak nabarmen hobetzen direla.

2.– Bete beharreko helburuen eta erakunde titularren prestakuntza-esparruaren edo -izaeraren arabera, prestakuntza-planen baitan profesionaltasun-ziurtagiriak lortzea xede duten ekintzak eta/edo sektore produktibo jakin bateko gaitasunen eta/edo hainbat jarduera-sektoreren gaitasun horizontal eta zeharkakoen prestakuntzara bideratutako beste ekintza batzuk jaso ahal izango dituzte.

3.– Diru-laguntza jasotzeko unean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Erregistroan edo Prestakuntza Erakundearen Estatuko Erregistroan inskribatuta eta/edo akredituta dauden prestakuntza-erakundeek aurkeztuko dute Prestakuntza Plana.

Planak profesionaltasun-ziurtagiriak lortzea xede duten prestakuntza-ekintzak jasotzen dituenean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo Estatuko enpleguaren zerbitzu publikoak akreditatutako erakundeek baino ezingo dute aurkeztu.

Teleprestakuntza-modalitatean profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera zuzendutako prestakuntza-ekintzak emateko, zentroa EAetik kanpo kokatuta badago, lankidetzaren hitzarmen bat izan behar du EAEn kokatuta dagoen eta ziurtagiriak modalitate presentzialean emateko egiaztatuta dagoen prestakuntza-erakunderen batekin.

4. artikulua.– Prestakuntza-ekintzak.

1.– Deialdi honen ondorioetarako, prestakuntza-ekintzat hartuko da helburu, eduki eta iraupen propioak dituen irakaste- eta ikaste-prozesua, langileen gaitasuna eta kualifikazioak hobetzera bideratuta dagoena, baita horien lanbide-eguneratzea eta -espezializazioa hobetzera ere.

Ez dira finantzatuko nagusiki prestakuntza-prozesu bat (irakaskuntza-ikaskuntza) garatzea helburu ez duten ekintzak.

2.– Orokorrean, prestakuntza-planetan barne hartutako prestakuntza-ekintzek gutxienez 6 ordu eta gehienez 270 iraungo dute parte-hartzaile bakoitzeko. Salbuespen gisa, beste muga batzuk ezarri daitezke eskarian behar bezala justifikatzen denean. Prestakuntzako jarduerak egunean gehienez 8 ordu iraungo dute.

3.– Modalitate hauetako batean eman behar dira prestakuntza-ekintzak: presentziala, teleprestakuntza edo mistoa.

a) Prestakuntza presentziaz jotzen da, ikasgela batean irakasleek ikasle talde bati ezaguera berak eta aldi berean transmititzen dietenean, edozein motatako baliabide didaktiko erabilita.

b) Teleprestakuntzat jotzen da parte-hartzaileak ikaskuntzaren erritmoak bere denborara egokitzen dituenean; horretarako, prestakuntza-prozesua egingo den tokiaz gain, tutore/irakasleak izango ditu, zalantzak argitzeko eta aurrerapausoak egiaztatzeko. Modu horretan, erabilitako materialen edukiak osatu edo sendotuko ditu.

Behar bezala arrazoituko da ekintzarako proposatutako teleprestakuntzako ordu kopurua.

b.1.– Teleprestakuntzarako, ikaskuntza sistematizatua dakarten euskarri didaktikoak erabili behar dira, eta, nahitaez, tutorearen laguntzarekin osatuko da.

b.2.– Deialdi honi begira, teleprestakuntza izango da Baliabide Etxeetan emandako prestakuntza. Baliabideetako ikastetxetat hartuko da banakako ekipamendu didaktikoa duen instalazioa; parte-hartzaileak hara joaten dira, hainbat euskarriren bidez prestakuntza eskuratzeko eta, han, beren zalantzak argitzeko tutoretza-motaren bat edukiko dute.

b.3.– Prestakuntza-plataformen gutxienerako ezaugarriak:

1) Prestakuntza gauzatzeko onuradunek erabiltzen duten teleprestakuntza-plataformak honako baldintza hauek bildu beharko ditu:

a) Prestakuntza-proiektu bat eduki behar du, ikasteko metodologia, jarraipena eta ebaluazioa zehaztuta.

b) Lineako eskuliburu bat eduki behar du ikaslearentzat, plataformaren eta ikaslearen beraren oinarriko eragiketen funtzionamenduari buruzkoa, lineako prestakuntzaren jarraipena egiteko. Eskuliburua deskargatu eta off-line kontsultatu ahalko da.

c) «Online» edo lineako ikaskuntza-programa bat eduki behar du, ikasleentzako prestakuntza kudeatzeko eta bermatzeko ahalmen nahikoarekin; gainera, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

– Arau tekniko aplikagarrian adierazitako fidagarritasun-, segurtasun-, irisgarritasun- eta interaktibitate-mailak biltzea.

– Erabiltzaile posible guztiei aldi berean sartzeko aukera ematea, eta, halaber, bermatzea plataformaren banda-zabalera berdina izango dela ikastaldiaren etapa guztietan.

d) Plataforma erabiltzeko lizentzia egokiak eduki behar ditu.

e) Ez du inolako publizitaterik eduki behar. Logotipoa eta fabrikatzailearen copyrighta ez dira publizitatetzat hartuko.

f) Edukiak editatzea eta aldatzea.

g) Astean, 7 egunez eta 24 orduz erabilgarri izatea.

2) Honako komunikazio-tresna hauek ere eduki beharko ditu:

a) Foroak: foro anitzak eta aldiberekoak ireki, itxi eta kategorizatzeko aukera, eta gutxienez 4 Mbs-ko fitxategiak igotzekoa.

b) Txatak: prestakuntza-ekintza bakoitzeko gutxienez txat-kanal bat irekitzea.

c) Mezu elektronikoa: tutoreak jasotako mezu guztiak antolatzeke eta etiketatzeko aukera izango, baita artxibo bat baino gehiago eransteko aukera ere.

d) Ekitaldi-egutegia: egutegi bat behar da, ikastaldiak hartzen dituen hilabeteak bilduta, pertsonalizatua eta interaktiboa.

e) Informazio-gunea: tutore eta ikasleek aukera izango dute editatzeko ikastaldiari buruzko informazioa, albisteekin eta webguneekin lotutakoa.

f) FAQak: galdera ohikoenei buruzko informazioa.

g) Lineako erabiltzaileak: etengabe ikusi ahal izango da zein diren konektatuta dauden ikasleak.

h) Lantaldeak: egoki irizitako lantalde guztiak sortzeko aukera.

i) Kalkulatoriko denborekin ebaluazio objektiboak sortzeko aukera.

3) Plataforma administratzeko, honako eskakizun hauek bete beharko dira:

2015eko abenduaren 31, osteguna

a) Prestakuntza-ekintzaren interfazea, non Eusko Jaurlaritzak, Lanbidek eta Hobetuzek adizera emango baitute jardueraren finantzaketak izaera publikoa duela.

b) Babeskopiak aldizkakotasun nahikoa izango du, sistema eroriz gero datu guztiak berreskuratuko direla bermatzeko.

c) Ikasleen eta egiten dituzten jardueren erregistroak, eta txostenen edizioa.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eta Hobetuzi –erakunde horren entitate laguntzaile gisa– baimena ematea, dagokion klabearen bidez, prestakuntza-jarduera guztien kontrola eta jarraipena burutu dezaten.

e) Plataformaren kudeaketa-gida bat edukitzea.

f) Arazoak konpontzeko laguntza teknikoa, 24 orduan erantzuteko ahalmenarekin.

g) Bideoko, audioko eta bit-mapen irudiko formatuei euskarria ematea, multimedia formatuan edukiak eskaintzeko modua izateko ikaskuntza- eta ebaluazio-jardueretan.

4) Prestakuntza-ekintza bakoitzaren programazioa garatzen duten prestatzaileen jardunaren plangintza izan beharko du erakunde onuradunak.

b.4.– Teleprestakuntzako modalitatean prestakuntza ematen duten tutore-prestatzaileen bete-kizunak eta funtzioak:

Teleprestakuntzako modalitatean prestakuntza ematen duten tutore-prestatzaileek prestakuntza edo esperientzia beharko dute izan modalitate horretan.

Teleprestakuntzako modalitatearen jarraipena eta kalitatea bermatzeko, 10 orduetik gorako iraupena duten prestakuntza-ekintzen kasuan, 30 ikasleko, astean 10 orduko gutxieneko dedikazioa ezarriko zaio tutore-prestatzaileari prestakuntza-ekintzaren plangintzan.

Dena den, eta 10 orduetik beherako prestakuntza-ekintzei dagokienez, tutore-prestatzailearen dedikazioa ikasleko gutxienez 20 minutukoa izango dela bermatuko da.

Parte hartzen duten 70 ikasleko tutore bat izan beharko da gutxienez.

Tutore-prestatzailearen funtzioak honako hauek izango dira gutxienez:

a) Prestakuntza-taldeko ikasleen harrera plana garatzea prestakuntza-ekintzaren ezaugarri espezifikoaren arabera.

b) Ikasleak orientatzea eta gidatzea jarduerak egitean, materialak erabiltzean eta ikaskuntzako plataforma birtualaren tresnak erabiltzean prestakuntza-ekintzetan aurreikusiriko ahalmenak eskuratzeko.

c) Ikasleen partaidetza sustatzea gogoeta- eta debate-jarduerak proposatuz, banakako zereginak eta talde-lana antolatuz eta ezarritako komunikazio-tresnak erabiliz.

d) Parte-hartzaileek egindako jardueren jarraipena eta balorazioa egitea, ikaskuntzako plataforma birtualaren tresnen bidez, aurreikusitako plangintzari atxikita.

e) Parte-hartzaileak ebaluatzea, ezarritako irizpideen arabera, eta dagozkion ebaluazio-proben antolamenduan eta garapenean parte hartzea.

f) Prestakuntza-jarduerak antolatzeko, kudeatzeko eta garatzeko ardura duten gainerako talde-ideekiko koordinazioa eskatzen duten jarduera guztietan parte hartzea.

g) Prestakuntza mistotzat jotzen da, irakaskuntza modalitate presentzialaz eta ez-presentzialaz baliatuz emandako prestakuntza denean, kasu bakoitzean beharrezkotzat jotzen den orduen ehunekoan.

4.– Prestakuntza-ekintza presentzialak taldean antola daitezke, gehienez ere 20 parte-hartzailek osatutako taldeak osatu ahal direlarik; talde bakoitzean 25 ikasle onartuko dira, salbuespen moduan, behar den bezala justifikatzen bada. Prestakuntza-ekintza ez presentzialetan, parte hartzen duten 70 ikasleko irakasle bat izan beharko da gutxienez. Ekintza mistoen kasuan, aipatu mugak errespetatuko dira, kasuan kasuko prestakuntza-modalitatearen arabera.

5.– Lehenetsuneko prestakuntza-arloak dira honako hauek: hizkuntzen gaitasunarekin loturikoak, ofimatika eta informazioa eta komunikazioaren teknologiak, ezagutza finantzarioak, juridikoak eta Administrazio Publikoen funtzionamenduaren ezagutzak, berrikuntza, ekintzailetza, nazioartekotza, garapen teknologikoa eta azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuaren bidez araututako EAEko lanbide-gaitasuna aitortzeko, ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurak aurreikusitakoak.

5. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Eskaerak Hobetuz Fundazioaren egoitzetan aurkeztuko dira:

– Arabako Lurralde Egoitza: Dato 14-16, 3. solairua, 01005 Vitoria-Gasteiz.

– Bizkaiko Lurralde Egoitza: Kale Nagusia 35, 6. solairua, 48009 Bilbao.

– Gipuzkoako Lurralde Egoitza: Manterola 4, 1. solairua, 20007 Donostia.

Era berean, eskaerak aurkeztu daitezke Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako bulegoetan.

Eskaera horiek paperean aurkeztuko dira, bai eta Hobetuz Fundazioak www.hobetuz.eus webgunean deialdi honetarako eskainitako euskarri informatikoan ere.

Paperean aurkeztutako datuen eta euskarri informatiko bidez aurkeztutako artean desadostasunik badago, paperean aurkeztutako datuak hartuko dira baliagarritzat.

2.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6. artikulua.– Eskaerak egiteko baldintzak.

Eskaeretan honako hauek jasoko dira:

a) Eskatzailearen edo haren ordezkariaren izena, egoitza soziala, helbidea eta harremanetarako telefonoa.

b) Hala dagokionean, ordezkaritza hori egiaztatzen duen jatorrizko agiria, edo Hobetuzek edo fede-emaile publiko batek konpultsatutako kopia.

c) Eskatzailearen eta ordezkariaren, horrela denean, NANaren edo identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

d) Erakunde eskatzailearen behar bezala legeztatutako estatutuen kopia, fede-emaile publikoak konpultsatua, edo, Hobetuzek egiaztatu ahal izateko, jatorrizko dokumentuarekin batera aurkeztua.

e) Erakundea dagokion administrazio-erregistroan izena emanda dagoela ziurtatzen duen agiria.

f) Laguntzaren xede den prestakuntza-plana, hurrengo artikuluan adierazten diren baldintzak beteta.

g) Diru-laguntzak ez bikoizteko eta prestakuntza-ekintzetarako gain finantzaketa ez izateko, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, beste diru-sarrera edo laguntza publiko osagarririk ez duela jasotzen adierazita (4. eranskina).

h) Titularraren erantzukizunpeko adierazpena, non aitortuko duen ez dagoela murgilduta Administrazio publikoren batek prestakuntza-arloan emandako diru-laguntzak itzultzeko ezein prozeduratan edo itzuli egin dituela eskatu zaizkion zenbatekoak (4. eranskina).

i) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta/edo Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.

j) Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena erakundeak ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zigor penalik edo administrazio-zigorrik, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

k) Teleprestakuntza-modalitatean eskaintzen diren profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntzaren kasuan, EAEn kokatutako zentrorik izan ezean, lankidetzaren hitzarmen bat izan beharko du EAEn kokatuta dagoen eta modalitate presentzian halako ziurtagirietarako egiaztatuta dagoen prestakuntza-erakunderen batekin.

l) Sozietate-talde batekoa izanez gero, hori egiaztatzen duen dokumentazioa.

lI) Erakundeak egokitzen jotzen duen dokumentazioa, 11. artikuluan aurreikusitako baloratzeko irizpideak –eta, bereziki, jarraian adierazitakoak– egiaztatzeko:

– 11 artikuluen b.1.1) letran aurreikusitako irizpidea aztertzeko: prestakuntza-planaren oinarri diren beharrezkoen analisia eta detekzioa jasotzen dituen azterlana, baita txosten edo memoria bat ere, plana zein neurritan egokitzen zaion azaldu eta justifikatzen duena, eta, hala badagokio, hori egin duen erakundearen legezko ordezkariak sinatutako azterlana egin izanaren ziurtagiria.

– 11 artikuluko b.2.5) letran aurreikusitako irizpidea baloratzeko: irizpide honetan adierazten diren ziurtagiriak edo ezagutzak.

m) Erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, diruz laguntzea eskatu duten prestakuntza-programa aurrera eramateko behar diren bitarteko pertsonal eta materialak izateari buruzkoa (ahalmen ekonomiko eta finantzarioa, eta instalazioak eta giza baliabideak).

7. artikulua.– Prestakuntza-planari dagozkien betekizunak.

1.– Prestakuntza-planek honako hauek bildu behar dituzte:

a) Plana egiteko arrazoiak.

b) Planak zein esparrutara bideratzen diren, eta planetan bildutako prestakuntza-eskaintza zenbateraino egokitzen zaien kasuan kasuko jardura-esparruaren edo -sektorearen beharrezkoak.

c) Prestakuntza Planaren helburuak eta edukiak.

d) Planean garatuko diren prestakuntza-ekintzak, espezialitateen arabera multzokatuta eta horretarako landutako inprimaki eta aplikatiboetan eskatzen den banantzea eginda; horrekin

batera, adieraziko da ekintza horietatik zein dagoen 4.5 artikuluan zehaztutako lehentasunezko arloetako baten barruan.

e) Prestakuntza-ekintzen kostuari buruzko aurreikuspena.

f) Prestakuntza-ekintzak gauzatzeko aurreikusitako egutegia.

g) Prestakuntza-ekintzak garatzeko instalazioak eta bitartekoak. Prestakuntza-jarduera egiteko, ezin izango hirugarrenekiko azpikontratarik egin; hala ere, ondorio hauetarako, irakasleen kontratazioa ez da azpikontrataziotzat hartuko.

h) Identifikatu beharko da zeinen ardura izango den prestakuntza-ekintzak garatzea, horien jarraipena eta kontrola egitea eta prestakuntza-plan bakoitza ebaluatzeko erabiliko diren irizpideak eta metodologiak zehaztea.

i) Parte-hartzaileak hautatzeko irizpideak.

2.– Prestakuntza-erakundeek prestakuntza-plan bat baino ezin izango dute eskatu, eta, gehiezen ere, 1.050.000 eurokoa, betiere kontuan izanik 10. artikuluan pertsona eta ordu bakoitzeko ezarritako modulu ekonomikoak.

8. artikulua.– Parte-hartzaileen betekizunak.

1.– Deialdi honetako bigarren artikuluan aipatzen diren pertsonak prestakuntza-planetako ekintzetan parte hartzea eskatu ahal izango diete plan horien erakunde titularrei, eta, eskaera egiteko eta parte hartzeko konpromisoa adierazteko, deialdi honetarako prestatutako dokumentu normalizatua erabiliko dute (eskaeraren 2.C eranskina). Prestakuntza profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera bideratuta egonez gero, urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren 20. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte parte-hartzaileek (34/2008 Errege Dekretua, Profesionaltasun Ziurtagiriak arautzen dituena).

Parte-hartzaileak eskaera-agiriaren eta parte hartzeko konpromiso-agiriaren kopia bat jasoko du. Jatorrizko agiria erakunde titularrak gordeko du, Hobetuzek edo kontrola egiteko beste erakunderen batek egiten dituen egiaztapenetan aurkezteko.

Deialdi honen 13.3 artikuluan adierazitakoaren arabera, parte hartzeko eskaeretan/konpromisoetan adierazitako datuak Hobetuzi jakinarazi behar zaizkio ezarritako epeen barruan eta Hobetuzek xede horrekin utzitako baliabideak erabiliz.

Erakunde eskatzaileak edo prestakuntza-ekintzak eskaintzeko ardura duen pertsonak aukeratuko ditu langile parte-hartzaileak, betiere hautapen-mekanismoen gardentasuna eta objektibotasuna ziurtatuz. Parte-hartzaileak aukeratzeko, hautaketa-proba bat egingo da hala eskatzen duten prestakuntza-ekintzetan, hain zuzen ere jarduera hori baliatuko dutela ziurtatzeko eta, egiazki, kualifikazioa emango duten ekintzen helburuak lortzeko beharrezko aurretiazko ezagueren zer maila duten jakiteko, eta, hala dagokionean, eskatu egingo dira lanbide-kualifikazioko 2. eta 3. mailetako profesionaltasun-ziurtagiriaren prestakuntza-moduluetako prestakuntza jasotzeko beharrezkoak diren funtsezko gaitasunak.

Era berean, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren alorreko legean xedatutakoa betetzeko, hautaketa-prozesuetan emakumeen parte-hartzeari lehentasuna emango zaio.

2.– Parte-hartzailea prestakuntza-ekintzatik kanpo geratuko da, baldin eta prestakuntza-ekintzaren iraupenaren % 25etik gorako portzentajearen bertaratzen ez bada.

3.– Langile batek ezingo du behin baino gehiagotan parte hartu prestakuntza-ekintza berean.

9. artikulua.– Laguntza zehaztea.

1.– Eskaerak aurkezteko eta akatsak 12. artikuluan ezarritako eran zuzentzeko epea amaitutakoan, prestakuntza-planen balorazio teknikoa egingo da, 11. artikuluan aurreikusitako irizpideen arabera, eskaerak puntuazio handiena izan dutenetik txikiena izan dutenera antolatuzeko.

2.– Ez dira finantzatu balorazio orokorrean 50 puntu baino gutxiago jaso duten prestakuntza-planak.

3.– 50 puntu edo gehiago lortu duen prestakuntza-plan bakoitzari eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, honela jokatuko da: aurkeztutako prestakuntza-plana osatzen duten prestakuntza-ekintzen orduak, biderkatuko dira parte-hartzaileen kopuruarekin eta 10. artikuluan arabera dagokion modulu ekonomikoaren zenbatekoarekin.

4.– Deialdi hau finantzatzeko guztira bideratutako zuzkidura ekonomikoa nahikoa ez bada prestakuntza-plan guztiak aurreko atalean adierazitako eran finantzatzeko, balorazio-fasearen ondorioz ateratako ordenaren arabera emango dira diru-laguntzak, arau hauei jarraituz:

– 76 puntu edo gehiago lortu duten prestakuntza-planek 3. puntuan adierazitakoaren arabera ateratako zenbatekoaren % 80 jasoko dute.

– 70 eta 75 puntu artean lortu duten prestakuntza-planek 3. puntuan adierazitakoaren arabera ateratako zenbatekoaren % 70 jasoko dute.

– 65 eta 69 puntu artean lortu duten prestakuntza-planek 3. puntuan adierazitakoaren arabera ateratako zenbatekoaren % 60 jasoko dute.

– 60 eta 64 puntu artean lortu duten prestakuntza-planek 3. puntuan adierazitakoaren arabera ateratako zenbatekoaren % 50 jasoko dute.

– 50 eta 59 puntu artean lortu duten prestakuntza-planek 3. puntuan adierazitakoaren arabera ateratako zenbatekoaren % 45 jasoko dute.

5.– Aurreko arau horiek aplikatuta azkeneko diru-laguntza puntuazio berbera lortu duten prestakuntza-plan biri edo gehiagori badagokie, 11. artikuluko b.2) letran aurreikusitako irizpidean puntuaziorik handiena lortu duenari emango zaio diru-laguntza. Hala eta guztiz ere, berdinduta jarraitzen badute, 11 artikuluko a.2.1) letran aurreikusitako irizpidean puntuazio handiena lortu duenari emango zaio.

10. artikulua.– Modulu ekonomikoak.

Diru-laguntzak zehazteko aplika daitezkeen gehieneko modulu ekonomikoak (parte-hartzaile bakoitzeko eta prestakuntza-ekintza bakoitzeko) jarraian adierazitakoak izango dira, betiere prestakuntzaren modalitatea eta maila kontuan hartuta:

a) Profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzera bideratuta ez dauden prestakuntza-ekintzak:

Eskola-modalitatea	Prestakuntza-maila	
	Oinarrizkoa	Goi-mailakoa
Presentziala	9 euro	13 euro
Teleprestakuntza	7,5 euro	
Mistoa	Aurreko moduluak aplikatuko dira, prestakuntza-ekintzak dituen prestakuntza presentzialeko orduen eta teleprestakuntzako prestakuntza-orduen arabera	

2015eko abenduaren 31, osteguna

Irakaskuntza presentzialeko modalitatearen kasuan, «Oinarrizko mailako» modulua zeharkako ikasgaiari edo ikasgai generikoei buruzko prestakuntza ematen denean aplikatuko da, hain zuzen oinarrizko gaitasunak eta kualifikazioak garatzeko gaitasuna eskaintzen denean.

«Goi-mailako» modulua aplikatuko da, prestakuntzan espezializazioa eskatzen duten ikasgaiak ematen direnean eta/edo programazioko edo zuzendaritzako gaitasunak garatzeko gaitasuna ematen denean.

Modalitate presentzialaren goi-mailako modulu ekonomikoa ehuneko 50era bitartean areagotu daiteke prestakuntza-ekintza jakin batzuen kasuan, betiere euren espezialitatea eta ezaugarri teknikoak kontuan hartuta finantzaketa handiagoa behar bada.

Aurreko paragrafoan barne hartutako ekintzen guztizko kostuak ezingo du gainditu deialdi hau finantzatzen zuzendutako funtsen guztizkoaren ehuneko 5.

Aipatutako salbuespenak aplikatzeko, eskaeretan adierazi beharko dira ekintza bakoitzean dauden berezitasunak. Eskaerak ebatzi ondoren ezin izango da onartu salbuespen bakar bat ere.

b) Profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzera bideratuta dauden prestakuntza-ekintzak:

Eskola-modalitatea	Prestakuntza-maila
Presentziala	8 euro
Teleprestakuntza	5 euro
Mistoa	Aurreko moduluak aplikatuko dira, prestakuntza-ekintzak dituen prestakuntza presentzialeko orduen eta teleprestakuntzako prestakuntza-orduen arabera

11. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Aurkeztutako prestakuntza-planen balorazio teknikoa egiteko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

A) prestakuntza-erakunde eskatzailearen gaitasun teknikoa. Atal honetan, eta gehienez ere 100etik 35 puntu izanik, honako hauek hartuko dira kontuan:

a.1.– Akreditazioaren dibertsifikazioa eta inskripzioa. 10 puntu gehienez.

Lanbide-familia kopuru ezberdintzat joko dira, erakunde eskatzaileek 2015eko abenduaren 1a baino lehen inskribatutako eta/edo akreditatutako espezialitateen arabera.

21 lanbide-familia baino gehiago	10 puntu
16 eta 20 lanbide-familia bitartekoa	5 puntu
11 eta 15 lanbide-familia bitartekoa	3 puntu
6 eta 10 lanbide-familia bitartekoa	2 puntu
1 eta 5 lanbide-familia bitartekoa	1 puntu

a.2.– Kaudimen egiaztatua. 25 puntu gehienez, guztira.

a.2.1.– Irakastea 25 puntu gehienez.

Urteko langileen batez besteko kopurutzat jota, zehazki, erakunde eskatzaileak Lanbidek 2012, 2013 eta 2014 ekitaldietarako finantzatutako prestakuntza-eskaintzen esparruan langabeentzat eta/edo langileentzat emandako ikastaroak amaitu dituztenak.

401 parte-hartzaile baino gehiago	25 puntu
301 eta 400 parte-hartzaile bitartean	20 puntu
201 eta 300 parte-hartzaile bitartean	15 puntu
101 eta 200 parte-hartzaile bitartean	10 puntu
100 parte-hartzaile baino gehiago	5 puntu

a.2.2.– Nagusiki landun pertsonen bideratutako prestakuntza-planak zuzentzeko gaitasuna. 25 puntu gehienez.

Langileen artean enplegurako prestakuntzarako interesa eta parte-hartzea sustatzeko edota planak diseinatzeko, planifikatzeko, programatzeko, kontrolatzeko eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko gaitasuna ulertuko da honen baitan, kontuan hartuta urtean landun zenbat pertsonak hartu duten parte Lanbidek 2012, 2013 eta 2014 ekitaldietarako onetsitako enplegurako prestakuntza-laguntzen deialdien (nagusiki landun pertsonen zuzenduta) babespean finantzatutako planen ikastaroetan, erakunde eskatzaileak edo kasuan kasuko sozietate-taldeak titulua emanda.

Sozietate-talde batekoa dela ulertuko da:

– 1407/2013 Erregelamenduaren (EB) 2.2 artikuluekin bat etorritik enpresa bakar berberaren baitan dagoela jotzen denean.

– Merkataritzaren Kodeko 42. artikuluko irizpideekin bat etorritik, sozietate-talde berbera osatzen duenean.

401 parte-hartzaile baino gehiago	25 puntu
301 eta 400 parte-hartzaile bitartean	20 puntu
201 eta 300 parte-hartzaile bitartean	15 puntu
101 eta 200 parte-hartzaile bitartean	10 puntu
100 parte-hartzaile baino gehiago	5 puntu

a.2.3.– Erakunde titularrak aurretiaz langileak prestatzen duen esperientzia. 10 puntu gehienez.

Nagusiki langileei zuzendutako prestakuntza-planetarako finantza lortu den urteei dagokien kopurua.

> 6 urte	10 puntu
3-6 urte	5 puntu
1-3 urte	3 puntu

B) eskatutako prestakuntza planaren kalitatea. Atal honetan, eta gehienez ere 100etik 65 puntu lortzeko aukerarekin, honako hauek hartuko dira kontuan:

b.1.– Planaren prestakuntza-eskaintza zenbateraino egokitzen den xede duen esparrura eta lan-merkatuaren beharretara. Atal honetan, gehienez ere 100etik 35 puntu izanik, honako hauek hartuko dira kontuan:

b.1.1.– Aurkeztutako prestakuntza-ekintzen eta lan-merkatuak dituen prestakuntza-premien arteko egokitasuna. 35 puntu gehienez.

Justifikatu egin beharko da aurkeztu den prestakuntza-plana detektatu diren lan-merkatu beharrietara egokitu dela. Beharrian horiek aurretiaz EAeko sindikatu-erakunde eta enpresa-erakunde adierazgarriek, esparru edo jarduera-sektore jakin bateko sindikatu- eta enpresa-erakundeek, EAeko autonomoen edo gizarte-ekonomiaren erakunde adierazgarriek, Administrazio Publikoak, arlo horretan esperientzia egiaztatua duen erakunde edo elkarte batek edota prestakuntza eskatzen duen erakundeak berak eginiko azterlan batean aztertu eta jasoko dira, prestakuntza-planaren xede den esparruaren edo sektorearen arabera.

Irizpide hori baloratzeko, 6. artikuluko II) letran aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

b.1.2.– Plana lehentasun-esparruetara egokitzea. 5 puntu gehienez.

Ekintzak deialdi honen 4.5 artikuluan adierazitako lehentasun-eremuekin bat datozen baloratu da, guztira onetsitako ekintzen ganean lehentasun-ekintzen ehunekoa aintzat hartuta:

% 75-100 bitartean	5 puntu
% 50-74 bitartean	4 puntu
% 25-49 bitartean	3 puntu
% 25 baino gutxiago	2 puntu

Eskatutako lehentasunezko ekintzen ehunekoari derrigor eutsi beharko zaio plana gauzatu bitartean.

b.2.– Plana osatzen duten elementuen kalitatea eta koherentzia, eta planak barne hartzen dituen prestakuntza-ekintzak. Atal honetan, 100etik gehienez ere 30 puntuazioarekin, honako hauek hartuko dira kontuan:

b.2.1.– Zabalkundea. 5 puntu gehienez.

Zabalkunde-plana behar bezala deskribatu eta zehazten duen. 5 puntu.

b.2.2.– Programazioa. 5 puntu gehienez.

Planaren baitan, prestakuntza-ekintzen diseinuak eta programazioak sartzen dira. Bestek beste:

- Helburuak neurtu eta identifikatu daitezke.
- Edukiak zehaztuta daude.
- Iraupenak bat datoz helburu eta edukiekin.

3 alderdi behar bezala jasotzen baditu	5 puntu
2 alderdi behar bezala jasotzen baditu	3 puntu
1 alderdi behar bezala jasotzen badu	1 puntu

b.2.3.– Informazioa eta aholkularitza. 5 puntu gehienez.

Alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Informazio sistema bat, eginkizunak gauzatzeko langile espezifikoa izanik.
- Aurretiaz orientazioa eta informazioa emateko materiala (diptikoak, prestakuntza-mapak...).
- Erakundeak langileen prestakuntzarekin loturiko proiektuak kudeatzen ditu.
- Erakundeak informazioa emateko berariazko beste jarduera batzuk jasotzen ditu eskaeran.

3 alderdi edo gehiago behar bezala justifikatzen baditu	5 puntu
2 alderdi behar bezala justifikatzen baditu	3 puntu
1 alderdi behar bezala justifikatzen badu	1 puntu

b.2.4.– Ebaluazioa eta jarraipena. 5 puntu gehienez.

Ikaskuntzaren jarraipena, ebaluazioa eta kontrola egiteko mekanismoak jasotzen dituen plana hartuko da kontuan, hau da, deialdi honetan eta aplikatu beharreko araudi erregulatzailan eskatutakoez gain daudenak.

- Ebaluatzeko berezko materialak daude.

- Aurkeztutako ekintzetan, ebaluatzeko proposamen zehatzak aurkeztu ditu.
- Ekintzen eta emaitzen memoria egiten du.
- Lortutako gaitasunak irakasteko jarraipena eta laguntza egiten du eta/edo parte-hartzaileekin harremana dago (egiaztatua) prestakuntzaren ondoren.
- Erakundeak ebaluatzeko eta jarraipena egiteko beste ekintza osagarri batzuk jasotzen ditu eskaeran.

4 alderdi edo gehiago behar bezala justifikatzen baditu	5 puntu
3 alderdi behar bezala justifikatzen baditu	3 puntu
2 alderdi behar bezala justifikatzen baditu	2 puntu
1 alderdi behar bezala justifikatzen badu	1 puntu

b.2.5.– Erakundearen ebaluazioak edo ziurtagiriak. 5 puntu gehienez.

Kalitatearekin, Segurtasunarekin, Ingurumenarekin edo Genero berdintasunarekin loturiko ebaluazioak edo ziurtagiriak hartuko dira kontuan, homologatutako estandar jakin batzuk lortu direla egiaztatzen badute. Era berean, erakunde publikoen bestelako ebaluazioak ere hartuko dira kontuan (justifikatuta).

5 ziurtagiri edo ebaluazio baino gehiago egiaztatzen badira	5 puntu
2-4 ziurtagiri edo ebaluazio bitartean egiaztatzen badira	3 puntu
1 ziurtagiri edo ebaluazio egiaztatzen bada	1 puntu

Irizpide hori baloratzeko, 6. artikuluko II) letran aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

b.2.6.– Erakunde eskatzailearen bitarteko materialak eta pertsonalak. 5 puntu gehienez.

Jarraian zerrendatutako bitarteko materialak eta pertsonalak dauden hartuko da kontuan, aurkeztutako prestakuntza-plana garatzean eta exekutatzean, hau da, aplikatzekoa den araudian gutxienez eskatutakoez gain:

- berariaz administrazio-kudeaketaz eta -lanez arduratzen diren langileak.
- berariaz Planean aurkeztutako lanbide-familia bakoitzean prestakuntza emateaz arduratzen diren langileak.
- aurkeztutako prestakuntza-planean eskura jarritako bitarteko materialak, besteak beste, hone-lako alderdiak jasotzen dituztenak:

- 1.– Instalazio bereziak lanbide-familia bakoitzerako.
- 2.– Tresna bereziak lanbide-familia bakoitzerako.
- 3.– Instalazio eta tresna komunak eta erabilera anitzekoak.

C) 2013 eta 2014 ekitaldietan langileei zuzendutako eskaintzaren prestakuntzarako deialdietan (Lanbidek onetsi eta finantzaturakoa) duen exekuzio maila. Irizpide hori 10 punturekin haztatuko da gehienez ere.

Emandako behin-behineko diru-laguntzaren eta azkenik justifikatu eta likidatutakoaren arteko exekuzio-mailaren batez bestekoa honako hau bada (itxitako azken bi deialdietan):

% 95-100 artean, baita lehen aldiz deialdi honetara aurkeztu diren titularren kasuan edota itxitako azken deialdira aurkeztu diren horien kasuan ere	0 puntu
% 91-94 bitartean	2 puntu baino gutxiago
% 81-90 bitartean	4 puntu baino gutxiago
% 71-80 bitartean	6 puntu baino gutxiago
% 61-70 bitartean	8 puntu baino gutxiago
% 0-60 bitartean	10 puntu baino gutxiago

12. artikulua.– Prozedura izapidetzea eta ebaztea.

1.– Behin eskaerak aurkeztuta, aurkeztutakoa baino informazio gehiago eskatu ahal izango da. Interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epearen barruan zuzen dezala hutsunea edo aurkez dezala nahitaezko dokumentazioa, eta, orobat, ohartarazi egingo zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela joko dela; horretarako, baina, ebazpen bat eman beharko da alde zuzenetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2.– Hobetuzek aurkeztu diren eskaerak aztertuko ditu, eta ebazpena emango du aurkeztutako laguntza-eskaera bakoitza guztiz edo partez ukatzeko edo onartzeko. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura igorriko ditu proposamen horiek, hark dagokion ebazpenak eman dezan.

3.– Hobetuzek egindako proposamena aztertu ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak dagokion ebazpena emango du, eta interesdunari jakinaraziko die.

Ebazpena aldekoa bada, diruz lagunduko diren prestakuntza-ekintzak adieraziko dira, baita parte-hartzaile kopurua, ordu kopurua eta finantzaketa ere.

Interesdunak 10 eguneko epea izango du emandako diru-laguntza onartzen duela adierazteko, zuzendari nagusiak ebazpena jakinarazten duen egunetik hasita. Epe hori igarotakoan, eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

Era berean, ebazpena Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletako iragarki-taulan argitaratuko da, bai eta www.lanbide.eus eta www.hobetuz.eus webguneetan ere.

2015eko abenduaren 31, osteguna

4.– Zuzendari nagusiaren ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa jar dakioko organo horri, hilabeteko epean, interesdun bakoitzari jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean, jar daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

5.– Ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez 6 hilabetekoa izango da, deialdia EHAAan argitaratzen denetik eta, epe hori amaituta jakinarazpenik jaso ez bada, eskaera ezetsi dela ulertuko da.

6.– Diru-laguntza ematearen aldeko ebazpena jaso ondoren, eta behar den aurrerapenarekin, laguntzaren onuradunak eskatu ahal izango du finantzatutako planean aldaketak sartzeko, baldin eta aldaketok finantzatutako ekintzen edukiari buruzkoak edo ekintzak egikaritzeko erari eta/edo epeei buruzkoak badira. Aldaketa-eskaera hori idatziz egingo da, eta behar bezala arrazoitu beharko da. Lanbideko zuzendari nagusiak onartu beharko ditu aldaketa horiek.

Parte-hartzaileen kopuruari edo irakaskuntzaren modalitateari eragiten dioten aldaketak direnean, baimendu ahal izango dira baldin eta ez badute murrizten hasierako eskaeran lortutako balorazio teknikoa.

7.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du onuradunen eta emandako diru-zenbatekoen zerrenda.

13. artikulua.– Prestakuntza-plana gauzatzea.

1.– Zer prestakuntza-plan egikaritzeko eskatu den diru-laguntza, bada plan horiek egikaritzera bideratuko da emandako diru-laguntza.

2.– Deialdi honen bidez finantzatutako prestakuntza-planetan bilduta dauden prestakuntza-ekin-tzak erabat doakoak izango dira parte-hartzaileentzat.

3.– Talde edo ekintza bakoitza hasi aurretik, titularrak honako alderdi hauen berri jakinarazi beharko dio Hobetuzi:

– Hasi baino 7 egun lehenago, gutxienez, prestakuntza emango den lekuari, prestakuntza emango duen erakundeari, eta ekintzaren datari eta ordutegiari buruzko datuak.

– Era berean, beranduenez ere prestakuntzaren bigarren egunean, prestakuntza-ekintzan parte hartzen dutenek betetako eskaera- eta konpromiso-agiriko datuak.

Ikastaldia amaitu eta gehienez ere 30 eguneko epean, titularrak jakinarazi beharko du zein diren amaitu duten parte-hartzaileak, eta ikastaldiari buruzko informazioa itxi beharko du.

Betebehar horiek betetzeko, Hobetuzek aplikazio bat jarriko du titularren esku, bere webgunean (www.hobetuz.eus). Horrela adierazitako informazioak ez du aldaketarik onartuko taldea edo ekintza amaitzen denetik zenbatzen hasi eta 30 egun igaro ondoren, eta horixe izango da prestakuntza-plana gauzatu dela justifikatzeko kontuan hartuko den bakarra.

Betebehar horiek ez badira betetzen, prestakuntza-ekintza ez egindakotzat hartuko da, planaren justifikazioaren ondorioetarako.

4.– Ekintza presentzialetan, titularrek eguneroko bertaratze-partea egin beharko dute, eta irakasleak eta parte-hartzaileak sinatu beharko dute.

Teleprestakuntza-ekintzen kasuan, berriz, titularrak prestatu beharko du parte-hartzaile bakoitzaren gainean egindako jarraipen-kontrolari buruzko dokumentazioa.

2015eko abenduaren 31, osteguna

Parte-hartzaile bakoitzari prestakuntza-ekintzan parte hartu izanaren ziurtagiria emango zaio, Hobetuzek ezarritako ereduaren arabera, eta bertan adierazi beharko dira gutxienez: ekintzaren izena, prestakuntza-edukiak, modalitatea, ekintza zer egunetan garatu den, eta jasotako prestakuntza-orduak, hala dagokionean era presentzialean eta teleprestakuntzan emandako orduak zehaztuta.

Kualifikazio Sistema Nazionalaren Katalogo Modularrari dagozkion prestakuntza-ekintzetan, eta prestakuntza-ekintza gainditu duten pertsoneri dagokienez, parte-hartzaileei emango zaien ziurtagiria, Hobetuzek eska dezakeena, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako prozeduraren arabera egingo da.

Parte-hartze ziurtagiriak parte-hartzaileei eman beharko zaizkie, parte hartu duten prestakuntza-ekintza amaitu eta bi hilabeteko epean, gehienez.

Titularrak ziurtagiri horren kopia gordeko du, parte-hartzailearen «jaso izanarekin» batera.

5.– Diru-laguntzaren onuradunak bitarteko propioak erabili beharko ditu finantzatzen den prestakuntza-planaren programazioa eta koordinazioa egiteko, eta, edozein kasutan, bere gain hartuko du hura garatzeko erantzukizun osoa, betiere eskumena duten erakundeek jarraipen- eta kontrol-funtzioak gara ditzaten bermatuz.

6.– Langileek prestakuntza-ekintza uzten badute, beste langile batzuk sartu ahal izango dira haien orde. Prestakuntza-jardueraren iraupenaren ehuneko 25era iritsi baino lehen onartuko da ordezte hori, salbu eta profesionaltasun-ziurtagiriei loturiko prestakuntza-jarduerak badira; kasu horretan, ordeztea prestakuntza-jarduera hasi eta lehen bost eskola-egunetan gertatzen bada onartuko da soilik, betiere ehuneko hori gainditu ez bada.

7.– Prestakuntza-ekintza hasi aurretik, istripuetarako eta erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat egin beharko da, prestakuntza-ekintzetara joatean gerta daitezkeen istripuak estaltzeko, honako hauek barne hartuta: eskolak ematen diren tokira egindako joan-etorriak («in itinere»), eta, hala badagokio, ikasleek, prestakuntza-ekintzen osagarri, enpresetara edo bestelako tokietara egiten dituzten bisitaldiak.

Polizaren iraupena bat etorriko da prestakuntza-ekintzaren iraupenarekin, eta, orobat, estali egingo du prestakuntza gauzatzean parte-hartzaileek eragindako kalteak. Alde horretatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez du inolako erantzukizunik izango. Ildo horretatik, hirugarrenen aurreko erantzukizun zibila prestakuntza-ekintza gauzatzean sortutako gastutzat hartuko da.

Aseguru-poliza prestakuntza-ekintza bakoitzerako propio sinatu ahal izango da, edo prestakuntza-ekintzen multzo baterako. Modu batera zein bestera egin, polizak zehatz jasoko du noiz hasi eta noiz mugaeguneratzen den, zein den prestakuntza-ekintzaren identifikazio-zenbakia, zenbat ikasle parte-hartzaile sartzan diren aseguruan, eta zein diren kontratutako estaldurak. Istripuen kasuan, gutxienez honako hauek estaliko dira: istripuak eragindako heriotza; istripuak eragindako ezintasun iraunkor absolutua eta istripuak eragindako ezintasun iraunkor partziala –baremoaren arabera ezarriko da–; eta istripuetan osasun-laguntza ematea, eskola-aseguruen estalduraren adinakoa.

Parte-hartzaile batek ezingo du inola ere prestakuntza-ekintza bat hasi, istripuetarako aseguru-poliza harpidetu gabe dagoela.

14. artikulua.– Diru-laguntzak ordaintzea.

1.– Hobetuzek ordainduko ditu diru-laguntzak; horretarako, onuradunak alde aurretik aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta/edo Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.

2.– Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da, honela:

a) Diru-laguntza osoaren % 50eko lehen ordainketa bat izango da Hobetuzek lehen prestakuntza-ekintza hasi izanaren ziurtagiria jasotzen duen unean. Lehen ordainketa hori 180.303,64 eurotik gorakoa bada, titularrak bankuko abala aurkeztu beharko du, ebazpenarekin batera adieraziko diren jarraibideak kontuan izanik, edo bestela plana gauzatzekoan dagoeneko sortutako gastuen justifikazioa, justifikatu gabeko gainerakoak kopuru hori gainditzen ez badu.

b) Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren gainerakoari dagokiona, Hobetuzen justifikazio-memoria aurkeztu eta dagokion azken likidazioa onartzen denean.

15. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikatzeko onartutako kostu finantzarriak eta egozte-irizpideak.

1.– Honako hauek izango dira kostu finantzarriak eta egozte-irizpideak:

A) Prestakuntza-jardueraren zuzeneko kostuak:

a) Barruko eta kanpoko prestatzaileen ordainsariak. Horien barruan sartzen dira: soldatak, gizarte-aseguratuak, dietak eta joan-etorriak egiteko gastuak.

Gastu horiek behar den bezala zehaztuta adierazi behar dira, kasuan kasuko jarduera bakoitzak hartutako orduak zehaztuz.

b) Ekipo didaktikoak eta plataforma teknologikoak amortizatzeko gastuak. Horiek kalkulatzeko, kontabilitate-arauetan onartutako amortizazio-irizpideak jarraituko dira. Era berean, ekipo didaktikoak eta plataforma teknologikoak alokatzeko gastuak jasoko dira, interesak kanpoan utzita.

Gastu horiek prestakuntza-ekintza bakoitzaren kasuan behar den bezala zehaztuko dira, eta ekipoei eta plataformei emandako erabilera indibidualaren arabera kalkulatuko dira; bestela, erabilera-orduak egotziko dira.

c) Bitarteko didaktikoen gastuak edota material didaktikoak eskuratzeko gastuak, bai eta planeko prestakuntza-ekintzak egiteko erabilitako bitartekoak ere, babes eta segurtasunerako materiala barne hartuta. Era berean, teleprestakuntzari dagokionez, kontuan hartuko dira prestatzaileek eta parte-hartzaileek erabilitako komunikabideei egotzi ahal zaizkien kostuak.

Gastu horiek prestakuntza-ekintza bakoitzaren kasuan behar den bezala zehaztuko dira eta ekipoei eta plataformei emandako erabilera indibidualaren arabera kalkulatuko dira; bestela, erabilera-orduak egotziko dira.

d) Alokairu finantzarioaren gastuak, interesak kanpo, edo prestakuntza-planaren garapenean erabilitako gelak, tailerrak eta gainerako azalaren amortizazioa. Gastu horiek prestakuntza-ekintza bakoitzaren kasuan behar den bezala zehaztuko dira eta ekintzak irauten duen denboragatik egotziko dira.

Amortizazio-gastuak kalkulatzeko, oro har onartuta dauden kontabilitate-arauak jarraituko dira; gainera, Sozietateen gainerako Zerga arautzen duen Araudiak onartutako taulen arabeko amortizazio-metodoa aplikatuko da.

e) Parte-hartzaileen istripu-asegurua.

Gastu horiek prestakuntza-ekintzen arabera behar bezala xehatuta aurkeztu beharko dira, eta egozteko parte-hartzaileen kopurua kontuan hartuta egingo da.

f) Prestakuntza-ekintzen parte-hartzaileen garraio-, mantenu- eta ostatu-gastuak, betiere foru-araudian lokomozio eta dieten gastuei lotutako PFEZaren esparrurako ezarritako mugak errespetatuz.

Gastu horiek prestakuntza-ekintzen arabera behar bezala xehatuta aurkeztu beharko dira eta egozteko parte-hartzaileen kopurua kontuan hartuta egingo da.

g) Prestakuntza-ekintzak antolatzeko eta ezagutzera emateko publizitate-gastuak.

Gastu horiek prestakuntza-ekintzen arabera behar bezala xehatuak aurkeztu behar dira.

B) Prestakuntza-jardueraren zeharkako kostuak:

a) Barruko laguntza-langileen kostuak eta plana kudeatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak, langileei orientazioa eta aholkularitza ematekoak barne.

b) Beste zenbait kostu: argia, ura, berogailuak, mezularitza, posta, garbiketa, zaintza eta beste batzuk, planaren gauzatzearekin erlazionatuta daudenak baina aurretik aipatu ez direnak.

Kostu horiek guztiak diruz lagundutako jarduerari egotziko dizkio erakunde onuradunak, onartutako kontabilitateko arau eta printzipioetan adierazitako moduan eta, betiere, kostu horiek jarduera egin den aldikoak badira.

Zeharkako kostuek, guztira, ezin izango dute gainditu prestakuntza-jardueraren kostuen % 10.

C) Diruz lagundu daitezkeen beste kostu batzuk:

Prestakuntzaren kalitatearen ebaluazioak eta kontrolak eragindako kostuak. Onuradunak diru-laguntzaren % 1 eta % 5 artean bideratuko du xede horretarako.

Edozein kasutan, kostu diruz lagungarriak kostu errealak izango dira, hau da, benetan egin eta ordaindu diren eta fakturen edo kontabilitate-dokumentu baliokideen bitartez justifikatu diren kostuak.

16. artikulua.– Diru-laguntzen justifikazioa eta likidazioa.

1.– Diruz lagundutako prestakuntza-plana osatzen duten prestakuntza-ekintzak garatzean sortutako kostuak justifikatu beharko dituzte onuradunek, aurreko oinarrian ezarritakoaren arabera.

Kostuak justifikatzeko, zuzenbidean baliagarriak diren froga-dokumentuak edo fakturak aurkeztuko dira, funtsen aplikazio zuzena ziurtatzeko behar den xehetasunarekin eta Hobetuzek kostuak justifikatzeko emandako jarraibideekin bat etorrira.

2.– Laguntzen likidazioa ikastaroa amaitu duten parte-hartzaileen eta egin dituzten eskola-ordu eraginkorren arabera egingo da, deialdi honetan ezarritako eta onartutako modulu ekonomikoak aintzat hartuta. Likidazio-zenbatekoa inola ere ezin da izan handiagoa hasiera batean onartutako diru-laguntzarena baino.

Prestakuntza gauzatu ondoren, diru-laguntza zehaztu ahal izateko, ekintza presentzialetan pertsona batek prestakuntza amaitu duela ulertuko da baldin eta prestakuntza-ekintzaren iraupenaren ehuneko 75ean bertaratu bada. Halaber, teleprestakuntzako modalitatean emandako

2015eko abenduaren 31, osteguna

prestakuntza-ekintzetan, pertsona batek prestakuntza amaitu duela ulertuko da baldin eta ikaskuntzaren jarraipena egiteko aldizkako kontrolen ehuneko 75 egin baditu eta teleprestakuntzari buruzko gainerako betekizunak bete baditu. Betekizun horiek Hobetuzen webgunean argitaratuko dira deialdia EHAAan argitaratzen den egun berean, onuradun eta parte-hartzaile guztiak jakitun egon daitezen.

Baldin eta parte-hartzailearen batek prestakuntza-orduen % 25 eman ondoren uzten badu prestakuntza-jarduera, prestakuntza-jarduera hasten duten parte-hartzaileen kopurua % 15 desbidera daiteke gehienez ere prestakuntza-jarduera bakoitzeko; hasitako parte-hartzailetzat hartuko da ikastaroko orduen lehen laurdena (% 25) gainditu duena.

Langabezia dauden pertsonen kasuan, lana aurkitu dutela-eta ekintza uzten badute, prestakuntza-ekintza amaitu dutela ulertuko da baldin eta prestakuntza-jardueraren ehuneko 25 gutxienez eginda badute.

3.– Azken likidazioa egiteko, 2017ko irailaren 15a baino lehen onuradunak inprimaki normalizatuetan honako agiri hauek bete behar ditu, eta Hobetuzera igorri:

a) Burututako eta bere garaian hasi zela jakinarazitako prestakuntza-ekintza bakoitzaren amaiera-ziurtagiria (burutzapena).

b) Plana amaitu dela ziurtatzen duen agiria. Bertan zehaztuko dira burututako prestakuntza-ekintza guztiak.

c) Diruz lagundutako prestakuntza-ekintzei buruzko kostuak gutxienez ziurtatuko dituen dokumentazioa, deialdi honetan ezarritako kostu finantzaragarrien eta egozte-irizpideen arabera.

d) Profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza edozein modalitatetan ematen duten erakundeek erantzukizunpeko adierazpen bat erantsi beharko dute, non adieraziko baitute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari aurkeztu diotela emandako prestakuntza gauzatzeari eta ebaluatzeari buruzko dokumentazio guztia (dokumentazio horretan bildu egingo da ikasleek lortutako emaitzak, ebaluazio-txostenak eta -aktak...), hau da, profesionaltasun-ziurtagiriei buruzko araudian eskatzen den dokumentazioa.

4.– Parte-hartzaile hauek baino ez dira kontuan hartuko: aurkeztutako gauzatze-ziurtagirietan zuzen betetako informazioa duten eta deialdi honetako hamahirugarren artikuluko 3. zenbakian aipatzen den parte-hartzaileen zerrendan sartuta dauden parte-hartzaileak.

5.– Aurkeztutako agiriak aztertu ondoren emango da diru-laguntzaren azken likidazioko ebazpena.

Egindako likidazioa aurreratutako kopurua baino txikiagoa bada, dagokion itzulketa-espeditentea izapidetuko da, deialdi honetako 19. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

6.– Emandako laguntzaren ondorioetarako egin diren ordainketen ordainagiri originalak aurkeztu beharko ditu onuradunak, edo, horiek ezean, fotokopia konpultsatuak aurkeztuko ditu behin betiko likidazioa jakinarazi eta hurrengo 20 egunetan.

7.– Diru-laguntzaren onuradunek 4 urteko epean gorde beharko dituzte, diru-laguntzaren amaierako likidaziotik hasita, bai diru-laguntzaren oinarri den jarduera gauzatu dela egiaztatzen duten agiriak, bai eta jasotako funtsen erabilerari buruzko ziurtagiriak ere.

Diru-laguntzaren onuraduna epe hori amaitu baino lehen desagertzen bada, aipatu dokumentazioaren kopia bidali beharko du Hobetuzera desagertu baino lehen.

17. artikulua.– Laguntzarako eskubidea lortzeko eta eskubide horri eusteko baldintzak.

Laguntza jasotzeko eskubidea eskuratu eta horri eusteko, onuradunak honako betebeharrak hauek bete beharko ditu:

1.– Aurreko deialdietan jasotako zenbatekoak itzuli izana, hala eskatu bazaio.

2.– Laguntza jasotzea ekarri duen prestakuntza-jarduera egitea, betiere deialdi honetako eta EAEko Etengabeko Prestakuntzako Lanbide arteko Akordioko oinarri, baldintza eta betekizun formal eta materialen arabera. Kontzeptu horrengatik esleitutako funtsak zertarako eman ziren, bada, horretarako erabili beharko dira, eta ez beste ezertarako.

3.– Hobetuzen aurrean jarduera gauzatu dela egiaztatzea, baita laguntza ematea edo gozatzea ekarri duten betebeharrak eta baldintzak bete direla ere. Horretarako, dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dituzte, eta prestakuntza-ekintzari buruz eskatuko zaizkien datuak eta agiriak aurkeztuko dituzte prestakuntza-ekintza amaitu ondoren; hartara, egiaztatu ahal izango da ekintza egin dela, emandako finantzaketa erabili dela eta lortutako emaitzen ebaluazioa egin dela.

4.– 18. artikuluan ezarritako kontrol- eta jarraipen-jardunak onartzea.

5.– Onartutako ekimena jakinarazteko eta hedatzeko argitalpenetan nahiz bestelako zabaltze-bideetan aditzera eman beharko da ekintzak burutu direla Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetako langileei zuzendutako enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzen 2016ko deialdiaren esparruaren barruan, eta gainera, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hobetuzen logoak jarri beharko dira; hori guztia, erraz ikusteko moduko tokian.

18. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

1.– Diru-laguntzen onuradunek burutzen duten prestakuntzaren kalitateari buruzko ebaluazioa eta kontrola egin beharko dute, eta, horretarako, diru-laguntzaren % 1etik % 5era bitarteko kopurua erabiliko dute. Ebaluazio- eta kontrol-jarduera horiek prestakuntza taldeen ehuneko 5ean egingo dira gutxienez.

Edonola ere, talde batek prestakuntza-ekintza amaitzen duenean, parte-hartzaileek kalitateari buruzko galdesorta bete beharko dute, eta onuradunek galdesortako azken itemaren batez besteko puntuazioa sartu beharko dute asistentziaren jarraipena egiteko aplikazioan.

2.– Laguntzen onuradunek egiaztatze- eta kontrol-jarduerak onartu beharko dituzte, zehazki honako erakunde hauek egindakoak: Hobetuzek, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Kontroleko Bulegoak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak. Halaber, erakunde horiei aukera emango diete lokal eta instalazioetara sartzeko eta parte-hartzaileekin eta elkarrizketatu nahi dituzten beste pertsonekin harremana izateko.

Kontrol-jarduera horiek onartzeko betebeharrak orokor honen esparruan, onuradunak honako hau bete beharko du:

1) Finantzatutako ekimena gauzatu izanari edo ekimen horren bideragarritasunari buruzko informazioa ematea, baita jarraipena egiteko eskatzen zaion dokumentazioa betetzea eta igortzea ere. 10 eguneko epea izango du egiten diren errekerimenduei erantzuteko.

2) Hobetuzi jakinaraztea beste erakunde batzuetatik diru-laguntzak edo laguntzak eskatu edo lortu direla, deialdi honetan diruz lagundutako ekintza guztiei edo batzuei eragiten dietenak.

3) Jarduera presentzialetan, bertaratuen eguneroko parte bat egitea eta Hobetuzen esku jartzea.

4) Prestakuntza-ekintza ez-presentzialen kasuan, parte-hartzaile bakoitzari egindako jarraipen-kontrolari dagokien dokumentazioa gordetzea. Era berean, kontrola egiteko beharrezkoak diren informazioa eta bitartekoak eskainiko dira eta, hala dagokionean eta Hobetuzek eskatzen badu, gakoak emango dira, diruz lagundutako prestakuntzari buruzko informaziorako sarbide telematikoa ahalbidetzeko.

3.– Auditorien eta Ikuskaritzen Urteko Plan bat ezarriko du Hobetuzek, deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeke eta diruz lagundutako ekintzak benetan zein baldintzatan egikaritu diren aztertzeke. Plan horren baren sartuko dira Hobetuzek egingo den arriskuen analisiaren ondoriozko estatistika-irizpideen arabera aukeratzen dituen espedienteak. Ikuskatze Planean bilduko dira, halaber, behar bezala identifikatutako pertsonen egindako eta sinatutako salaketetatik eratorritako jardunak.

19. artikulua.– Diru-laguntzak itzultzea.

1.– Jasotako laguntzak osorik edo zati batean itzuli beharko dituzte onuradunek, eta berandutze-interesak eskatuko zaizkie laguntza ordaintzen den unetik, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta honako hauetan:

– Laguntzaren helburua edo laguntza emateko agindutako baldintzak ez betetzea.

Oro har, xedea ez dela bete ulertuko da, eta, hortaz, jasotako guztia itzuli egin beharko dutela, baldin eta, aurkeztutako eta onartutako datuak kontuan hartuta, ez bada lortzen, gutxienez, prestakuntza orduen eta prestakuntza jasotako pertsona kopuruaren arteko biderketaren % 90 burutzea edo emandako diru-laguntzaren % 90; eta, orobat, lehentasunezko arloetan gauzatu beharreko ekintza-kopuruari buruz ebazpenean adierazten den ehunekoa betetzen ez bada.

– Jarduera gauzatu izana nahiz laguntza ematea edo baliatzea baldintzatzen duten baldintza eta betekizunak bete izana ez justifikatzea.

– Baldintzak bete gabe jaso izana laguntza.

– Jarraipen- eta kontrol-jardunak ukatzea edo oztopatzea.

– Datu faltsuak ematea diruz lagundutako ekintzak egikaritzeko baldintzei buruz, errealitatearekin bat ez datozenak.

– Deialdi honetan zehaztutako beste edozein betebeharrak, baldintza edo betekizun ez betetzea.

2.– Itzultzeko prozedurari Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren idazki bidez emango zaio hasiera, eta idazkia bidaliko dio Hobetuzek laguntzaren onuradunari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Horrekin batera, jakinaraziko dio hamabost eguneko epea duela alegazioak edo egokitzat jotzen dituen egiaztagiria aurkezteko; hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutuan ematen diren berme eta itzulketen erregimena arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera.

3.– Alegazioak aurkezteko epea amaitutakoan onuradunak alegaziorik aurkeztu ez badu edo alegazioak onartu ez badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak itzulketa eskatzeko ebazpena emango du, eta itzulketa hori ebazpenean adierazitako epean gauzatu beharko da. Horretarako, Hobetuzek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura bideratuko ditu dagokion espedienteak, errekerimendu-idazkia eta, hala badagokio, alegazioak, ebazpena emateko propo-

2015eko abenduaren 31, osteguna

samenarekin batera. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

4.– Borondatezko epea amaitutakoan itzulketa gauzatu ez badu, beharrezko izapideak jarriko dira abian, itzuli beharreko diru-zenbatekoak premiamendu-bidetik berreskuratzeko. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarrera publikotzat hartuko dira.

20. artikulua.– Datuen tratamendu automatizatua.

Izaera Pertsonaleko Datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatuta dagoena betez, laguntza-eskaera betetzeak berekin ekarriko du interesdunak baimena ematea datu horiek Hobetuzen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren fitxategietan sartzeko. Aipatu Legean aurreikusten diren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatze eta aurka egiteko eskubiak Hobetuz Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioaren aurrean gauzatu daitezke (Kale Nagusia 35 - 6.a, 48009 Bilbao), baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan ere.

XEDAPEN GEHIGARRIETATIK LEHENENGOA.– Erakunde laguntzailea izendatzea.

1.– Hobetuz-Langileen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Fundazioa izendatzen da deialdi honetan arautzen diren laguntzen kudeaketarako eta ordainketarako erakunde laguntzaile, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 52. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aipatutako 52. artikulua dioenez, deialdi honetan aipatzen diren funtsak ematen dituen organoaren kontura eta izenean jardungo du Hobetuz Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak. Haatik, funts horiek ez dira, inola ere, Hobetuzen ondaretzat hartuko.

2.– Laguntza-deialdi hau finantzatzeko funtsak 2016ko ordainketa-kredituari dagozkie, eta emandako laguntzen guztizko zenbatekoaren % 50en baliokidea izango da funts horien gehieneko zenbatekoa. Hobetuz Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioari transferituko dizkie funts horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, erakunde laguntzailea baita hura, betiere deialdiko laguntzak ematen dituen ebazpena hartu ondoren. Gainerakoa 2017ko ekitaldian transferituko da.

XEDAPEN GEHIGARRIETATIK BIGARRENA.– Hobetuz Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioaren betebeharrak.

Deialdi honetan zehaztutakoez gain, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 52. artikuluan ezarritako betebeharez gain, Hobetuz Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak honako betebeharrak hauek izango ditu:

- Funtsak amaierako erakunde onuradunen artean banatzea.
- Laguntzei esker prestakuntza-ekintzak gauzatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak eskatzea, eta lau urtez gordetzea.
- Jaso diren funtsak zertan aplikatu diren justifikatzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean, 2017ko abenduaren 30a baino lehen, eta honako alderdi hauek zerrendatuta aurkeztea: amaierako onuradunen izen-abizenak, emandako laguntzak, egindako ordainketak eta, oro har, funts horiekin egindako prestakuntza-jardueren memoria orokorra osa dezaketen bestelako datu kuantitatiboak zein kualitatiboak.

2015eko abenduaren 31, osteguna

– Funtsen kudeaketari dagokionez, egiaztatze-jarduerak onartzea, zehazki Eusko Jaur-laritzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren bitartez egin ditzakeen egiaztatze-jarduerak.

– Deialdietan aurreikusten diren ez-betetzeetako bat gertatuz gero, onuradunei diru-laguntzak itzul ditzaten eskatzea, deialdietan bertan ezarritako itzultze-prozedurari jarraituz, betiere kasuan kasu ematen diren ebazpenetan adierazitakoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIETATIK HIRUGARRENA.– Finantzaketa-soberakinen azken likidazioa.

Deialdi honetan arautzen diren laguntzen onuradunek aplikatu ez dituzten finantzaketa-soberrakinak eta deialdian aurreikusten den itzulketa-prozeduraren ondoriozko funtsak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuliko dizkio Hobetuz Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak.